

# Gipuzkoako Foru Aldundia

## Gipuzkoako Herritarren Partaidetzarako Erakunde arteko Espazioa

### 2020ko memoria-txostena

2020ko abendua



elhuyar  
Aholkularitza





1. Sarrera .....	4
2. Helburuak.....	6
3. 2020ko planifikazioa.....	8
4. 2020ko jarduera .....	9
4.1. Talde eragilea .....	9
4.2. Gogoeta estrategikoa.....	9
4.3. Plenarioa .....	13
4.4. Foro Teknikoa .....	14
4.4.1. Lantaldeak .....	14
4.4.2. Mintegiak .....	16
4.4.3. Trebakuntza .....	17
4.4.4. Bilgune Teknikoa .....	18
4.4.5. Komunikazioa.....	19
5. Balorazioa .....	21
5.1. Balorazio orokorra.....	21
5.2. Aurrera begirakoak .....	23

Herritarren Partaidetzaren alorrean  
**Gipuzkoako Foru Aldundiaren  
Herritarren Partaidetzako**

**Zuzendaritzak** gidatzen duen

Gipuzkoako Lurralde Historikoko

**Herritarren Partaidetzarako**

**Erakunde arteko Espazioa**ren

2020ko jardueraren memoria jaso du

**Elhuyar Aholkularitzak** dokumentu

honetan.



# 1. Sarrera

Gipuzkoako Foru Aldundia urratsak ematen ari da herritarren partaidetzaren sustapen eta garapenean, eta horren adierazle da 2020-2023 kudeaketa Plan Estrategikoak honako helburuak jasota izatea: harreman zuzena bultzatzea herritarrekin, partaidetza kultura zabalduz eta sendotuz.

Helburu horiek gauzatzeko xedearekin, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernanzarako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamenduak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Herritarren Partaidetzarako Erakunde arteko Espazioa sortu zuen 2017ko urtarrilean.

Erakundeen Arteko Espazioaren **xede nagusia** hurrengoa da:

Lan egitea herritarren partaidetzaren garapenean, Foru Aldundiaren eta toki entitateen zeharkako jarduketa esparrutzat hartuta. Horretarako, Espazioak elkarrizketak sustatzera eta herritarren partaidetzako politikak bultzatzera bideratutako erakunde-esparrua izan nahi du bereziki, eta, aldi berean, esperientzia eta praktika onak trukatzeko eta arlo horretako gaiak denon artean ikasteko esparru bat.

Eta **helburu nagusiak** bost dira:

- a. Sare bat edo erakunde arteko topaketa espazio bat eratzea Lurralde Historikoko maila anitzeko gobernuen ikuspegitik, batik bat, foru gobernuaren eta tokiko gobernuen ikuspegitik, eta horren helburua herritarren partaidetzarako politikak sustatzea izango da, herritarren eta erakundeen arteko erlazioak indartu daitezen.
- b. Herritarren partaidetzaren arloko erakundeen esperientziak eta jardunbide egokiak trukatzeko espazio bat ezartzea, alor horretako elkarrekiko ikaskuntzako erakunde-komunitatea eta hobekuntza instituzionala sustatuta.



# 1. Sarrera

- c. Laguntza eta lankidetzak teknikorako bideak hedatzea Espazioan dauden erakundeek betebeharrak arauemaileak egikaritzeko, araudiak eta ordenantzak onartzeko eta herritarren partaidetzarako metodologiak, prozesuak eta tresnak martxan jartzeko.
- d. Herritarren Partaidetzako alorrean Foru Aldundiaren diru laguntzen politika zehazten laguntzeko tresna izatea.
- e. Prestakuntza programak eta jardunaldi espezializatuak sustatzea, baldin eta zeharkako alor honetan eskuduntzak dituzten kargu publiko adierazgarrien eskumen instituzionalak indartzen badituzte eta herritarren partaidetzaren alorreko foru eta udal zuzendari eta teknikarien gaitasun profesionalak garatzen badituzte.

Egindako bidea egonkortu eta hedatu nahian, eta jorrotutako norabidean urratsak ematen jarraitzeko helburuarekin, Erakunde arteko Espazioaren laugarren garapen urtean 2020-2023 urteetarako gogoeta estrategikoa egin dugu udalerrietako ordezkari politiko zein teknikoekin batera. Honela, udalerrietako behar komun eta zehatzei erantzuten dien bost lan-ildo estrategiko definitu ditugu, hauek lortzeko plangintza eta lan-egiturak zehaztearekin batera. Beti ere, Erakunde arteko Espazioa herritarren partaidetzarako udal-teknikari eta ordezkarien erreferentziazko lan-sarea izanik.



## 2. Helburuak

### 2.1. Helburu nagusia

Herritarren Partaidetzarako Erakunde arteko Espazioaren Foro Teknikoa eta Plenoa dinamizatzea eta egindako lana sistematizatzea, orain arte egindako lana balioan eta indarrean jarritz; beti ere, jomuga nagusia udalen arteko elkarlan-sarea handitu eta Erakunde arteko Espaziora udal berriak erakartzea dela kontuan hartuta, bai haien partaidetza aktiboa ahalbidetzeko eta baita udalei partaidetzarako kultura zabaltzeko beharrezkoak dituzten baliabideak eskuragarri jartzeko helburuarekin.

### 2.2. Helburu zehatzak

- Egindako ibilbidea eta lanaz jabetuta, legegintzaldiko 2020-2023 urteetarako planifikazio estrategikoa egitea, udaletako ordezkariekin batera gogoeta partekatua eginez. Ondoren, Plenarioan aurkeztea, honek onar dezan.
- 2020-2021eko plangintza zehaztea, gogoetan adostutakoari jarraituz, eta Plenarioan aurkeztea, honek onar dezan.
- 2020 eta 2021eko planifikazioa garatzea, aurreikusitako lantaldeak, mintegiak eta trebakuntza gauzatuz, eta on-line foroa kudeatuz.
- Urte bakoitzeko planifikazioari etengabeko jarraipena egitea, eta urte bakoitzeko egitasmoaren bukaeran, urteko jardueraren ebaluazioa egitea.

### 2.3. Zeharkako helburuak

- Gipuzkoako udalerrietako Herritarren Partaidetzarako teknikarien edota ordezkarien sarea sendotzea, bertako kideen parte hartzea areagotuz eta parte izatearen sentimendua landuz.




## 2. Helburuak

- Egindako lana balioan eta indarrean jartzea, berau bistaratzuz eta ezagutzera emanez (ezagutzaren transferentzia).
- Iritziak, kezkak eta esperientziak trukatzuz, elkarrekin eta elkarrengandik ikastea, era berean, herritarren partaidetzarako metodologia, tresna eta teknikak eskuratuz eta lan-prozesuetan nahiz bitartekoetan eraginkortasunaren eta berrikuntzaren ikuspegia txertatuz. Lan-prozesuak sistematizatu eta prototipatzea, praktika eredugarriak eskura izateko helburuarekin.
- Udalerriek Herritarren Partaidetza sustatzeko plangintzetara bideratutako esfortzu eta baliabideak optimizatzea, bikoizketak ekidinez eta guztiontzako lana eraginkorragoa bihurtuz.
- Udalerriek Herritarren Partaidetza sustatzeko egiten dituzten ekintzak Gipuzkoako lurralde gisa dituen estrategien markoan kokatzea modu kontziente batez.



# 3. 2020ko planifikazioa

Helburuei erantzun asmoz, eta gogoeta estrategikoari lehentasuna emanez, hauxe izan zen 2020 urterako adostutako planifikazioa:







## 4. 2020ko jarduera

COVID-19aren izurriaren eraginez 2020 urteko plangintza aldatu egin da. Honen ondorioz, plangintzaren garapen epeetan hainbat egokitzapen egin behar izan ditugu. Formatuari dagokionez, 2020ko martxotik aurrerako ia lansai guztiak on-line izan dira.

### 4.1. TALDE ERAGILEA

Adostutako 2020ko plangintza koordinatu eta bideratzeko Elhuyar Aholkularitzako teknikariak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Herritarren Partaidetzako Zuzendaritza Nagusiko ordezkariak **10 aldiz bildu** gara 2020 urtean zehar. Bilerez gain, etengabekoa izan da **posta bidezko eta telefono bidezko harremana**.

Talde Eragilearen egiteko nagusiak prozesua abiatu eta ondo bideratzeko baldintza egokiak prestatu eta sortzea izan dira, baita etengabeko jarraipena burutzea ere.

### 4.2. GOGOETA ESTRATEGIKOA

2020ko abiapuntua Herritarren Partaidetzarako Erakunde arteko Espazioaren gogoeta estrategikoa izan da. Lehen hiruhilekoan egitea aurreikusita genuen arren, kontratuaren esleipena urtarrilaren bukaeran sinatzeak eta ondoren COVID-19 aren izurriteak eragindako egoerak adostuta genituen epe eta egiteko moduetan aldaketak eragin zizkigun. Honela, 2020ko ekaina arte luzatu behar izan genuen gogoeta.

Legegintzaldiko 2020-2023 urteetarako norabidea zehazteko hausnarketa eta lanketa bi lantalde desberdinetan egin genuen. Lantalde batean, herri ertain eta handietako partaidetza-teknikari eta ordezkariak bildu genituen; eta bestean berriz, herri txikitakoak. Herri tamainaren araberako bereizketa egitearen arrazoa bateko zein besteko errealitate desberdinari espazioa ematea eta errealitate bakoitzaren behar eta interesak jasotzea izan zen.



## 4. 2020ko jarduera



Lantalde bakoitzarekin hiru lansaio egin genituen. Lehenengo saioa aurrez aurre egin genuen arren, gainerakoak on-line egin behar izan genituen.

Lehenengo saioan Herritarren Partaidetzako Erakunde arteko Espazioaren orain arteko jarduera baloratu genuen eta hortik abiatuta, etorkizunerako erronkak lantzeari ekin genion. Bigarren saioan, erronka horiek lehenetsi eta hauei erantzuteko ekintza proposatu genituen. Eta hirugarren eta azken saioan, 2020-2023 epealdirako lan-ildo estrategikoak eta 2020 eta 2021 urteetarako plangintza aurkeztu genituen, bertaratutakoen ekarpenak jasotzeko tarte zabaldu genuelarik.



Guztira, gogoeta estrategikoko lansaioetan 37 udalerrik eta 51 pertsonak hartu zuten parte.



## 4. 2020ko jarduera

Hortaz, eta lantalde bakoitzarekin egindako gogoeta eta landutako edukiak kontuan hartuta, 2020-2023 legegintzaldirako ondorengo **lan-ildo estrategikoak** definitu genituen:

- **Gipuzkoako lurraldearen herritarren partaidetzaren markoa (diskurtsoa, errelatoa...) definitzea.**
- **Herritarren partaidetza sustatzeko administrazioaren landinamiak aztertu eta baldintza egokiak sortzea.**
- **Partaidetza kultura sustatzen jarraitzeko etengabeko formazioa eskaintzea.**
- **Izaera komunitarioa eta herritartasuna lantzea.**
- **Komunikazioa eta transmisioa lantzea, jakintza partekatua.**



## 4. 2020ko jarduera

Eta 2020-2023 epealdirako lan-ildo estrategikoak kontuan hartuta, hauxe izan zen **2020 eta 2021 urteetarako** adostutako **plangintza**.



**BILGUNE TEKNIKOA**

- Urteko plafinazioa, jarraipena eta ebaluazioa egin.

- 2020an bilera bat
- 2021ean 3 bilera



## 4. 2020ko jarduera

13.

### 4.3. PLENARIOA

Irailaren 25ean ospatu genuen Herritarren Partaidetzarako Erakunde arteko Espazioaren plenoa eta guztira 25 udalerritako 35 ordezkari hartu zuten parte, baita Gipuzkoako Foru Aldundiko Herritarren Partaidetzako Zuzendaritza Nagusiko 4 ordezkari eta Elhuyar Aholkularitzako 2 partaidetza-teknikari ere.



2020ko plenoa Joseba Muxika, Gipuzkoako Foru Aldundiko Herritarren Partaidetzako Zuzendaria zenari omenaldia eginez hasi genuen.

Ondoren, Herritarren Partaidetzarako Erakunde arteko Espazioaren gogoeta estrategikoaren emaitzak aurkeztu ziren, hain zuzen, 2020-2023 urteetarako lan-ildo estrategikoak eta 2020-2021 urteetarako plangintza aurkeztu genituen. Jarraian eta laugarren lan ildoari helduz, Igor Aherdok partaidetza komunitarioari buruzko hitzaldia eman zuen, instituzioen egitekoan arreta jarritz.





## 4. 2020ko jarduera

### 4.4.FORO TEKNIKOA

#### 4.4.1. Lantaldeak

Gogoeta estrategikoko emaitzan jaso bezala, bi lantalde izan dira 2020. urtean. Lantalde bakoitzak bere ibilbide propioa izan du.

##### 4.4.1.2. Herri txikien lantaldea

Urriaren 10ean herri txikietako lantaldeko bilera egin genuen eta haur eta gazteen partaidetzaz aritu ginen, Gaztematika eta Asteasuko esperientziak abiapuntu gisa hartuta.

Honetaz gain, aurrera begira herri txikiek dituzten beharrei buruz galdetu genuen, bai lantaldeak lantzeko edukiei dagokienez eta baita trebakuntza beharrei buruz ere.



Herri txikietako lantaldean 12 udalerrik eta 18 lagunek hartu zuten parte.

##### 4.4.1.1. Gipuzkoako Herritartasun Eskola lantaldea

Hasiera batean lantalde formatua aurreikusi bazen ere programazioan, ondoren erabaki zen saio irekia egitea eta edozeini ematea parte hartzeko aukera. Horrela ba, azaroaren 6an herritartasun eskola definitzen hasteko saio ireki bat egin genuen.



## 4. 2020ko jarduera

Saioaren helburua martxan dauden herritartasun eskolak ezagutzea izan zen eta Gipuzkoakoa diseinatzen hasteko lehenengo hurbilketa bat egitea. Saioaren lehen zatian Añanako, Donostiako eta Tolosako hiru esperientzia ezagutu genituen, bakoitzaren berezitasunak eta hiruen arteko puntu komunak azalduaz.

Bigarren zatian berriz, etorkizuneko Gipuzkoako Herritartasun Eskolaren oinarriak landu genituen. Besteak beste honako galderari erantzun genien:

- Zeintzuk izan beharko lirateke ezinbestean zaindu beharreko ezaugarriak?
- Zein eragilek hartu beharko lukete parte Herritartasun Eskolaren diseinuan?
- Zeintzuk izan beharko lirateke hurrengo urratsak?



Herritartasun eskolako saioan 15 udalerririk eta 24 pertsonak hartu zuten parte.



## 4. 2020ko jarduera

### 4.4.2. Mintegiak

Mintegiak gogoeta-saio gisa definitzen dira, gai zehatz baten inguruan jarduteko lansaioak.

2020ko planifikazioan jaso bezala, mintegi bakarra antolatzea zegoen aurreikusita. 2019ko Generoa eta Parte Hartzea lantaldeko gogoeta eta jarduerari itxiera emateko Partaidetza eta Berdintasuna ardatz izango zuen mintegi bat antolatzea zen asmoa. Gonbidatutako hizlarien agenda arazoak tarteko, mintegia 2021eko urtarrilera atzeratzea erabaki genuen. Gainera, mintegi formatu baino, lantalde formatua izatea dago aurreikusita.

Gauzak honela, eta Igor Ahedok Erakunde arteko Espazioaren Plenarioan emandako hitzaldiaren jarraipen gisa, partaidetza komunitarioko praktika desberdinak bildu eta erakutsiko lituzkeen mintegi bat antolatzea proposatu eta aztertu genuen. Kasu honetan, praktika egokiak topatzeko zailtasunak eta denboraz estu eta larri ibiltzeak, mintegia bertan behera uztea ekarri zigun, gaiari aurrerago heltzeko borondatea agertuz.





## 4. 2020ko jarduera

### 4.4.3. Trebakuntza

Trebakuntza-eskaintzaren helburu nagusia herritarren partaidetza sustatzeko politikak garatzeko behar diren gaitasun profesionalak eskuratzea da, eta horretarako, beharrezkoa da teknikariak zein politikariak prestatu eta trebatzea.

Gogoeta estrategikotik eratorritako planifikazioan jaso bezala, aurtengo trebakuntza-eskaintzak ekimen nagusi bakarra izan du:

- **Baliabide digitalen inguruko trebakuntza.**

Gogoeta estrategikoan landutakoaren haritik, COVID-19aren izurriteak eragindako egoera tarteko eta partaidetzako teknikari eta ordezkarien trebakuntza beharrei erantzun asmoz, baliabide digitalei buruzko trebakuntza-ikastaroa aurrera eramatea adostu zen.

Baliabide digitalei buruzko ikastaroa 2020ko urrian burutu dugu, Elhuyar Aholkularitzaren eskutik. Hiru orduko lansaiola izan zen eta partaidetza-prozesuetan lagungarri izan daitezkeen baliabide digitalak eta on-line tresnak geureganatzea izan zen helburu nagusia, partaidetza saioen fasilizazioan arreta jarritz.



Guztira, 20 udalerrik eta 35 pertsonak hartu zuten parte, 3 taldetan banatuta.



## 4. 2020ko jarduera

### 4.4.4. Bilgune teknikoa

Bilgune Teknikoa Gipuzkoako Herritarren Partaidetzarako Erakunde arteko Espazioaren planifikaziorako gune nagusia da, baita Gipuzkoako Herritarren Partaidetzako teknikarien eta herri txikietako ordezkarien arteko elkargunea ere.

Bilgune Teknikoak gogoeta estrategikoaren lanketarako (4.2 atala) bilerez gain, 2020ko jarduna ebaluatu eta aurrera begirakoak zehazteko bilera bakarra egitea zegoen aurreikusita eta abenduaren 4ean egin genuen.

- Lehen bilera eta azkena (Abenduak 4).

Bileraren helburu nagusia 2020an egindakoak berrikusi eta baloratzea izan zen, baita aurrera begirakoak partekatzea ere. Tartean dirulaguntzen inguruko datuak eta 2021eko deialdiaren berri eman zen.



Bilgune Teknikoko bilerara 9 udalerrri hurbildu ziren.



## 4.4.5. Komunikazioa

Komunikazioari dagokionez, eta aurreko urtetako dinamikari jarraipena emanez, proiektuan parte hartzen duten udalen arteko barne komunikazioari lotutako estrategia landu dugu.

### 4.4.5.1. Partekatu on-line foroa

Barne-komunikazioaren alorrean, kanal nagusia Partekatu On-line foroa izan da. Bertan bildu dira proiektuaren barne-komunikaziorako hainbat eduki. Partekatu foroaren barne, hurrengo atalak eta edukiak elikatu ditugu:

- **Dokumentuak atala.** Bertan foro teknikoko egituren lantsaioetako aktak, hainbat hitzaldi eta hitzartzeren bideoak eta landutako dokumentu eta euskarriak jasotzen dira.
- **Buletinak.** 2020. urtean guztira lau buletin bidali dira, hiruhileko bat. Herritarren partaidetzari buruzko berriak, praktika onak eta artikuluko interesgarriak jaso dira bertan, baita Gipuzkoako lurraldean, zein Gipuzkoatik kanpoko albisteak ere.



HERRITARREN PARTAIDETZARAKO ERAKUNDE ARTERKO ESPAZIOA APIRILEKO BULETINA

#### BERRIAK

Gipuzkoako Foru Aldundiko Herriaren Partaidetzako Zuzendaritzak gidatzen duen Erakunde arteko Espazioko egitaraua okintzez betea izan da urte hasieran ere.

• Gogoratu estrategikoak abiatu da



Gogoratu estrategikoekin abiatu da Gipuzkoako Herriaren Partaidetzarako Erakunde arteko Espazioaren arteko jarduna. Gogoratu helburua da Herriaren Partaidetzarako Erakunde arteko Espazioan azken urteetan egindakoaren hausnarketa eta baliabidea egitea, eta horietan oinarrituta, 2020-2023 egiteko norabidea zehaztea. Otsaila-martxoan abiatu zen prozesua herri biki, erain-handietako teknika, zinegotzi eta alkateekin egindako saio emankorrekini eta datoren hitabetetan izango du jarraipena.

• Aurrekontu teknikak azkenengo fasean sartzea duela Gipuzkoako Foru Aldundik bultzatzen duen gobernantza irekieraren eredu 4. edizioaren amaierara iristen ari da. Aurrekontu teknikak 2020 prozesuaren barnean, herriaren proposamenak proiektu birtutu eta 12 egitekoaren inguruan hausnartzeko fasea amaitu da. Herriaren bozketaren fasean Gipuzkoako 13.067 herritarrek parte hartu dute eta 10.789 bozka eman dira onartze, prozesuak aurriz ezarritako inpeidien arabera.

Gehiago irakurri

#### PRAKTIKA ONAK

Zaldibia, Plazara prozesua  
Prozesu honen helburua hau da: Zaldibiako plaza eraberritzeko gakoak, ideak eta lehentasunak zehaztea, eraberritzearen gaitasunaren oinarriak irakazteko, partaidetza ardatz izandak. Prozesua Herri Ar Ar Kooperatibak gidatzen ari da, eta ondoren du herriarrek eta udal-ordazkeriez osatutako Talde Eragilea, prozesuaren jarraipen, sustapen eta ebaluazioa egiten diharduen.



Gehiago irakurri

Kulturagune berritaren izena erabakitzeko kontsulta Asteigarragan Gipuzkoako Foru Aldundik landu eta prestatu duen Partaidetzarako plataforma erabili dute Asteigarragan Kulturagune berritaren izena erabakitzeke. Herrian erabilduta dauden 16 urteko pertsonen izan dute bozkatzeko aukera. Kultura batzordeak zehaztu zituen arauak, besteak beste, galdetutan erhun pertsona baino gehiagok parte hartu gero, emaitza lezetara izango zela erabaki zuten.

Gehiago irakurri

#### BALIABIDEAK

"Gobernantza kolaborativa para la inclusión social" liburua  
Gobernantzaren kontzeptuak kudeaketa publikoaren eta gobernu irekieraren bidezko paradigma berri bati erantzuten dio. Liburu honek baliabide jartzen du Foru Gobernuaren, biko giza-zerbitzuaren eta Gipuzkoako Inbuzaren giza-sektoreko erakundearen artean sortutako lankidetzaren esperantza. Berazki, eredu partekatu bat erabiltzearen erabilgarritasuna azalduzko helburuarekin.  
Irakurri artikuluak



"En la unión está la fuerza" liburua  
Komunikazioa, aholkularia, talde-lana, berritasuna... gisako baliabide lanetan ibiltzen diren taldeak, kolektiboak, taldeak olo eta taldearen inguruan baten oinarrituta dagoena.  
Irakurri artikuluak

#### Taldearen facilitatzaile buruzko didakia

Jose Luis Escobedo eta Urtzi ekaizketa, 20 minututan taldearen facilitatzailearen oinarriak eta taldeetako lider edo koordinatzaileentzat facilitatzaileak duen baliabide izaten da, baina baita norberak harremanak izateko eta taldearen egokiko modua hobetu nahi duen edonorentzat ere.  
Itxuli bideoa





# 4. 2020ko jarduerak

- **Elkarrizketak.** Aurten bi elkarrizketa argitaratu dira. Lehenengo elkarrizketatua Eider Mendoza izan zen, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernantza diputatua, eta bigarrena berriz, EztiTxu Mujika, Zaldibiako alkatea. Bakoitzari hiru galdera orokor eta motzean erantzuteko beste hainbat galdera egin zaizkie.

- **Proiektuen biltegia.** Asmoa zen baita beste atal berri bat gehitzea, parte hartzen duten udalerrietako esperientzien biltegi bat jasotzea hain zuzen, beste teknikarien kontsultarako eta erreferentzia gisa izan dadin antzeko prozesuak abian jartzeko. Maiatza inguruan atal hau diseinatzen hasi baginen ere, lehentasun kontuak medio, ondoren ez zaio atal honi heldu.



## 5. Balorazioa

### 5.1. BALORAZIO OROKORRA

Urteko balorazioa abenduko Bilgune Teknikoan egin zen.

Zer egin dugu ondo? galdera izan zen erantzun beharreko lehenengoa eta ondorengoak izan ziren nabarmendutakoak:

- On-linerako jauzia eta taldea mantentzea bera positiboki baloratzen dugu eta konforme geratzen gara zentzu horretan.
- Oztopo guztien gainera espazioa aurrera eramateko gai izan garelako balioan jartzen dugu. Horretarako, taldeak premia eta gogoia adieraztea ezinbestekoa izan da eta espazio honetako gertutasuna eta lagun-giroa mantentzeko gai izan gara.
- Nahiz eta espazioarekiko atxikimendua izan, urte honetan, urrutitasun pixka batekin sentitu gara. Urte konplexua izan da baina lorpenetako bat aurrera jarraitzea izan da eta tonua mantentzeko aukera eman digu horrek.
- Baliabide digitalen kasuan ideia eta proposamen desberdinak aipatu dira: batetik, herri txikiarentzat aukera bat izan da eta mantendu beharko genuke hori presentzialera itzulita ere. Eta gero, proposamen konkretu bat herri txikiarentzat garatu daitekeena: baliabide digitalekin bide-laguntza ematea eta saio bat dinamizatzea animatzea.

Hobetzeko artean berriz hiruzpalau aspektu izan ziren aipatutakoak:

- Herri-ertainei ere zerbait eskaini beharra.
- Herri txikiaren lantaldea eraginkorra izateko moduak bilatzea.
- Eta horrekin lotuta, jendea falta dela iruditzen zaigu. Bilgune Teknikoan, batez ere, profesionalak gaude eta herri txikiaren ekarpenak faltan botatzen ditugu.
- Eta ospakizuna!

Jarraian, Erakunde arteko Espazioaren 2020. urteko jardueraren otik 10era bitarte baloratzeko eskatu zitzaizkien eta batzuetan besteko puntuazioa 7koa izan zen.

Eta amaitzeko 2021era zer eramango dugun galdetu zitzaizkien eta hainbat erantzun jaso genituen:

- 2021era begira, konplexurik gabe hasi behar dugu eta traba egiten. Ez besteak gurekin haserretzeko, baina hirugarren lerrotik lehenengo lerroa pasatu behar



## 5. Balorazioa

gara. Elkartruketik asko izan dugu eta espazio horrek horretarako aukera eman du, baina elkarguneko espaziotik elkarlanerako espazioa izatera pasatu behar dugu. Ilusioa sortzen duen proiektu komun bat behar dugu, disziplinar-teakoa, departamentu-arteakoa... dena. Sukaldatzen ari gara baina gatza behar dugu, pizteko eta molestatzeko. Handira jokatzeko beharra sentitzen dugu, gauza berriak amestu eta sortu behar ditugu. Eztabaidari ez diogu beldurrik izan behar. Anbizioa eta errekonozimendua behar dugu.

- Mantentze-koetan aniztasuna eta tekniko-politikoaren arteko presentzia.
- Aurrera begirako erronken artean, herri-txikien lantaldeari bultzada bat ematea. Eta beste baliabide batzuk jarri behar ote diren aztertzea.
- Pandemiak azaleratu du guztiok ez goazela erritmo berdinean eta *partaidetzak nola lagundu dezakeen herritarren kezka gobernuen agendan jartzen eta zeintzuk uzten ditugu bidean?* gisako galderetan erreparatu beharko genuke.

Era berean, Bilgune Teknikoarekin osatu zen balorazio laburrean jasotzen den bezala, hein handi batean, espektatibak bete dira. Izan ere, eta adierazleei erreparatuta, **2019. urtean** Erakunde arteko Espazioan, gutxienez **behin, 40 udalek** hartu bazuten parte, **2020. urtea** amaitzerako, **46 udalek** hartu dute parte.

Bestalde, lortu da: udalen parte hartzea handitzea; herri txiki-txiki hurbildu eta haien errealitateara egokitzea, bai formatu bai edukiei dagokionez ere; parte hartzaileen artean aniztasun handiagoa izatea: tamaina, alderdi eta profil ezberdinetako udal eta pertsonen hartu dute parte; giroa ona izan da eta jendea partekatze gogoz azaldu da.

Elhuyarrek kideok, gure aldetik, Herritarren Partaidetzarako Erakunde arteko Espazioaren 2020ko jardura modu positiboan baloratzen dugu. Prozesuari dagokionez, aurreikusitako urrats guztiak eman dira. Hala ere, COVID-19aren izurriteak eragindako egoerak hainbat egokitzapen egitea behartu gaitu, epeetan atzerapen bat eraginez, eta baita Erakunde arteko Espazioaren baitako egitura guztietan 2020. urterako egindako lehen plangintzan aurreikusitako saiok baino gutxiago egitea ere.



## 5. Balorazioa

Egoerak egoera, lanerako oinarri hauek gailendu direla uste dugu: elkarlana, parte-hartzea, sare-ikuspegia eta malgutasuna.

Gure zerbitzuari dagokionez, proiektuari eta eginbeharrei egoki erantzun diogula uste dugu, on-line egitearen erronkari gogoz eta indarrez heldu diogula, eta lortu dugula egitasmoa ondo kudeatzea.

### 5.2. AURRERA BEGIRAKOAK

Aurrera begira, 2020 gogoeta estrategikoan landutakoak eta 2020ko azken sei hilekoan egindakoak balioan jarri eta definitutako lan-ildo estrategikoak ipar gisa hartuta, urtarrilean zehaztuko da 2021erako lan-eskema.